

## DIRU-SARRERAK

Gure enpresak 50.000€ kapital batekin hasiko da, enpresaren 4 bazkideek 12.500€ emango baitute bakoitzak. Hasiera batean beharrezko teknologia garatzeko eta erlojuaren diseinua aurrera eramateko erabiliko da diru hori. Gure produktuak kalitatezko materialak erabiltzen dituenek, horien ekoizpena nahiko garestia da. Horrez gain, erlojuak erabiltzen duen teknologia oso garatua denek, diru asko



inbertitu behar da arlo horretan. Hasieran izango ditugun kostuak oso handiak izango dira, baina produktua merkatuan aurrera egin ahala, ekoizpen kostu horiek murriztea izango da gure lehenengo helburua.

Horrez gain, etorkizunean izan ditzakegun inbertsoreak izango dira diru-sarreraren zati bat, horren ondorioz produktuaren kalitatea hobetzeko gai izango gara. Gure produktuaren oinarrizko bezereok ikasleak eta bere familiak dira. Kasu gehienetan, nahiko ziur gaude familiak izango direla erlojuak erosiko dituztenak. Familiaz gain, eskola batzuk interesatu egingo dira erlojuetaz eta prest egongo dira hauek erosteko. Familiek eta eskolek badakite produktu honek beren umeen eta ikasleen produktibitatea hobetuko dutela, prest egongo dira ezarritako prezioa ordaintzeko. Lehen aipatu dugun bezala, gure produktua merkatuan ospetsuagoa egin ahala, espero dugu bezero gehiago lortzea eta horrela gure produktua hobetzea. Ondorio gisa, gure bezeroen beharrak kontuan izango ditugu gure produktuak sortzerakoan eta horrek eragingo du kontsumitzaileek gure produktua erostea .